



FARMAZIA – ARABAKO ESI-A
Lehen Mailako Farmazia

e-mail.: farmacia.primariaosiaraba@osakidetza.eus

2024ko Abuztua	
PEDIATRIAKO LARRIALDIAK ETA PROZESU AKUTUAK EBAZTEKO GIDA	1 Jarraitu irakurtzen
AEMPS-EK GIZA ERABILERARAKO MEDIKAMENTUEN FARMAKOZAINZAKO ESPAINIAKO SISTEMAREN URTEKO TXOSTENA ARGITARATU DU	2 Jarraitu irakurtzen
AEMPS-REN GIZA ERABILERARAKO MEDIKAMENTUEN SEGURTASUN-BULETIN BERRIA	3 Jarraitu irakurtzen
ODOLJARIO HANDIKO ARRISKUA, TRAMADOLAREN ETA WARFARINAREN ARTEKO INTERAKZIOAGATIK	4 Jarraitu irakurtzen
GAIXOTASUN KARDIOBASKULARREN TRATAMENDUAREKIN LOTUTAKO ARGITALPENAK - Farmako kardiobaskularrak eteteko gomendioak - Beta-blokeatzaile bidezko tratamenduari buruzko gomendioak eguneratzea	5 Jarraitu irakurtzen
ARGITALPEN INTERESGARRIAK - AEMPS-ek "Haurrak eguzkitik behar bezala babesteko aholkuak" kanpaina argitaratu du - INFAC: edoskitzaroa eta medikamentuak - EAE-ko: farmakozaintzako buletin berria - AEMPS: giza erabilerarako medikamentuen batzordearen buletina	6 Jarraitu irakurtzen
MEDIKAMENTUEN HORNIDURAREN GABEZIAK ETA BERREZARPENAK	7 Jarraitu irakurtzen

1

PEDIATRIAKO LARRIALDIAK ETA PROZESU AKUTUAK EBAZTEKO GIDA

Lehen Mailako Arreta Koordinatzeko Zuzendariordetzak "[Pediatriako larrialdiak eta prozesu akutuak ebazteko gida](#)" ([esteka](#)) dokumentua hedatu du, ospitalez kanpoko eta Lehen Mailako Arretako esparruetara zuzenduta dagoena.

Paziente pediatrikoak artatu behar dituzten profesionalei laguntzeko pentsatuta dago, batez ere Etengabeko Arreta Guneetan, ordezkapenetan, udako errefortzuetan eta abarretan.

Horregatik, ez da zehatza. Gidak hiru atal ditu:

- **1: Web baliabideen direktorioa eta aplikazioa.** Webguneetarako eta dokumentazio pediatrikorako esteka erabilgarrien bidez. Baita ahalduzko eta prozesu arin automugatuak ebazteko familiei gomendatzeko modukoak diren Osasun Eskolako guneetara bideratzen dituzten esteken bidez ere.
- **2: Pediatrian "Egitekoak eta ez egitekoak" gomendioak,** prozesu urgente edo akutu horiek direla-eta.
- **3: Pediatriako oinarrizko bademekuma.** Gehien erabiltzen diren farmakoak biltzen ditu, ohikoenak diren indikazioekin, zeinak baliagarriak baitira larritasun txikiagoko prozesu akutu gehienetan. Premiazko edo larrialdi handieneko prozesuetarako, GIDEP protokoloak gomendatzen dira, bai eta GIDEPen CARDetan agertzen den medikazioa ere. Web eta app-rako estekak lehen orrian daude.

Dokumentu dinamikoa da, eta etengabe berrikusi eta eguneratzen da.

[HASIERA-ra Itzuli](#)

2

AEMPS-EK GIZA ERABILERARAKO MEDIKAMENTUEN FARMAKOZAINZAKO ESPAINIAKO SISTEMAREN URTEKO TXOSTENA ARGITARATU DU

[MUH 14/2024](#) informazio-oharraren arabera, 2023an, medikamentuen kontrako erreakzio-susmoekin lotura zuten 42.333 jakinarazpen jaso ziren guztira: % 60,8 medikuntzako profesionalen jakinarazpenak izan ziren, % 20 erizaintzakoek eta % 10,3 farmaziakoek.

Urteko txostenean kontrako erreakzio berriak identifikatzen lagundu duten kasuak nabarmentzen dira, hala nola Kaposi-ren sarkoma anti-TNF medikamentuekin, hiponatremia bortioxetinarekin edo Raynaud-en fenomeno labetalolekin.

Informazio gehiago: [Informe Anual \(2023\) del Sistema Español de Farmacovigilancia de Medicamentos de Uso Humano \(SEFV-H\)](#).

[HASIERA-ra Itzuli](#)

3

AEMPS-REN GIZA ERABILERARAKO MEDIKAMENTUEN SEGURTASUN-BULETIN BERRIA

AEMPSek giza erabilerarako medikamentuen segurtasun-buletin berri bat argitaratu du, non nabarmentzekoak:

Baklofenoa: entzefalopatia gehitzen da maiztasun ezezaguneko kontrako erreakzio gisa eta gaindosiaren sintoma gisa. Kontrako erreakzio hori itzulgarria da tratamendua eteteen.

Buprenorfina: interakzioak gabapentinoideekin eta antikolinergikoekin, opioideekiko tolerantzia eta horiek kontsumitzeagatiko nahasmendua (OKT) (abusua eta mendekotasuna) eta OKT saihesteko gomendioak. Informazio horrek buprenorfinaren aurkezpen guztiei eragiten die, inplantei izan ezik.

Mihipetik ematen den buprenorfinan, hortzetako txantxarra gehitzen da maiztasun ezezaguneko kontrako erreakzio gisa.

Dapagliflozina: hematokritoa handitzea. Monitorizatu behar da, eta azpiko gaixotasun hematologikoak baztertu behar dira.

Diklofenako topikoa: ez da ezagutzen haurdunaldian kaltegarria izan daitekeen edo ez; beraz, hau gomendatzen da:

-Haurdunaldiaren 1. eta 2. hiruhilekoan: saihestu diklofenako topikoa, guztiz beharrezkoa denean izan ezik; beharrezkoa bada, dosi txikienean eta ahalik eta denbora laburrenean eman behar da.

-Haurdunaldiaren 3. hiruhilekoan: kontraindikatura dago fetuan bihotz-biriketako eta giltzurruneko toxikotasuna eragiten duelako, bai eta odoljario luzeko arriskuagatik ere, zeinak erditzea luza baitezake.

Leflunomida: ebakuntza kirurgiko baten ondoren, alterazioak eragiten ditu pazienteen zaurien orbaintzean. Banakako ebaluazio bat egin ostean, hausnartu daiteke tratamendua etetea ebakuntzaren inguruko aldian eta leflunomida garbiketa-prozedura bat burutzea.

Lebofloxazinoa: mioklonia eta odolaren nahasmenduak

- Mioklonia kasuen berri eman da. Arriskua handiagoa da adineko pazienteetan eta giltzurrun-gutxiegitasuna duten pazienteetan, dosia doitzen ez denean. Agertzen bada, tratamendua eten behar da.

- Tratamenduan zehar, baliteke hezur-muinaren gutxiegitasuna garatzea (leukopenia, neutropenia, panzitopenia, anemia hemolitikoa, tronbozitopenia, anemia aplasikoa edo agranulozitosis barne). Odoleko nahasmendu horietakoren baten susmoa izanez gero, odol-zenbaketak egin behar dira. Ezohiko emaitzak lortuz gero, tratamendua etetea hausnartu behar da.

Aurrekoek gain, honako hauek gehitzen dira maiztasun ezezaguneko kontrako erreakzio gisa: mania eta larruazalaren hiperpigmentazioa.

Manidipinoa: aszitisa peritoneo-dialisia duten pazienteetan, itzulgarria tratamendua etetean. Jario peritoneal zurbila agertzen bada, balizko lotura hori baloratu behar da peritonitis infekzioso batekin ez nahasteko; horrela eginez, saihestuko dira beharrezkoa ez den ospitalizatzea eta antibiotikoak enpirikoki ematea.

Informazio gehiago nahi izanez gero, AEMPSren hileko segurtasun-buletina kontsulta daiteke [esteka](#) honetan, 2024ko uztailaren 15ean argitaratu zena.

[HASIERA-ra Itzuli](#)

4 ODOLJARIO HANDIKO ARRISKUA, TRAMADOLAREN ETA WARFARINAREN ARTEKO INTERAKZIOAGATIK

Garuneko odoljarioaren kasu hilgarri bat jazo ondoren, medikamentuak eta osasun-produktuak arautzeko agentzia britainiarrak (MHRA) ohartarazi du hilgarria izan daitekeen odoljario handia izateko arriskua dagoela warfarina eta tramadola batera erabiltzen direnean. Interakzio hori eragiten duen mekanismo zehatza ezezaguna da, baina ezin da baztertu azenokumarolarekin antzeko efektu bat izatea.

Azenokumarola edo warfarina bidezko tratamenduan dauden pazienteen kasuan, tramadola preskribatzen bazaie, MHRAk gomendatzen du INRa kontrolatzea eta zaintzea odoljariorik, hematoma larririk edo azalpenik gabeko

hematomarik, edota ezohiko buruko minik agertzen den; horiek honako hauekin batera ager daitezke, besteak beste: hitz egiteko zailtasunarekin, mugimendu-galerarekin, ikusmen lausoarekin, zorabioekin eta/edo konorte-galerekin.

Hona [hemen](#) alerta horri buruzko informazio gehiago.

Medikamentuen segurtasunari buruzko 2024ko [INFAC](#)en adierazi zen bezala, antikoagulatzaileak eta tramadola aldi berean erabiltzeak odoljario larriak izateko arriskua areagotu dezakeela susmatuz gero, tramadolaren erabilera soilik guztiz justifikatuta dagoenera mugatu beharko litzateke paziente antikoagulatuetan, eta beste analgesiko batzuk lehenetsi beharko lirateke.

[HASIERA-ra Itzuli](#)

5

GAIXOTASUN KARDIOBASKULARREN TRATAMENDUAREKIN LOTUTAKO ARGITALPENAK

FARMAKO KARDIOBASKULARRAK ETETEKO GOMENDIOAK

Europako Kardiologia Elkarteak (ESC) berrikusketa bat argitaratu du farmako kardiobaskularrak noiz eten behar diren identifikatzeko, eta honako hauek nabarmendu ditu: polifarmaziaren arazoa, saiakuntza klinikoetatik eratorritako ebidentziarik eza (paziente mota batzuk –adinduak, adibidez– baztertzearen ondorioz) eta farmako kardiobaskularrak eteteko unea eta modua zehazteko zailtasuna.

Hona [hemen](#) argitalpen horren esteka.

BETA-BLOKEATZAILE BIDEZKO TRATAMENDUARI BURUZKO GOMENDIOAK EGUNERATZEA

Andaluziako Medikamentuei buruzko Dokumentazio eta Informazio Zentroak (CADIME) laburtu eta argitaratu du Zeelanda Berriko Best Practice ADVOCACY Centre (BPAC) erakundeak egin duen gomendioen eguneratzea, patologia kardiobaskularren beta-blokeatzaile bidezko tratamenduari buruzkoa. Praktika klinikorako kontuan hartu beharreko funtsezko puntu batzuk nabarmentzen ditu pazientearen komorbiditateen (arnasketakoak, 2 motako diabetes mellitusa...), hasierako pautaren eta despreskripzioaren inguruan.

Informazio gehiago: [CADIME - Beta bloqueantes en enfermedades cardiovasculares](#)

[HASIERA-ra Itzuli](#)

6

ARGITALPEN INTERESGARRIAK

AEMPS-EK "HAURRAK EGUZKITIK BEHAR BEZALA BABESTEKO AHOLKUAK" KANPAINA ARGITARATU DU

Argitaratutako kanpainak gurasoentzat lagungarriak izan daitezkeen informazio orokorra eta material osagarriak eskaintzen ditu.

Hona hemen argitalpen horren [esteka](#).

INFAC: EDOSKITZAROA ETA MEDIKAMENTUAK

INFAC [buletin](#) honek aurreko buletinaren informazioa eguneratzen du, 2000. urtean argitaratu zena, eta Lehen Mailako Arretan gehien erabiltzen diren farmakoek duten arriskua balioesten saiatzen da, edoskitzaroan duten erabilerari buruzko gomendioak emateko.

Dokumentuetarako estekak:

- [Buletina](#)
- [Aurkezpena](#)

EAE-KO FARMAKOZAINZAKO BULETIN BERRIA

Euskal Autonomia Erkidegoko Farmakozaintzako Unitateak Farmakozaintzako Buletin berri bat argitaratu du. Buletin horretan, besteak beste, medikamentuen ondoriozko ototoxikotasunari, afliberzept injekzio intrabitreoari lotutako sindrome nefrotikoari eta kodeinaren ondoriozko hepatitisari buruzko informazioa jasotzen da.

Hona [hemen](#) buletinerako esteka.

AEMPS: GIZA ERABILERARAKO MEDIKAMENTUEN BATZORDEAREN BULETINA

Giza Erabilerarako Medikamentuen Batzordearen Buletina argitaratu zen 2024ko uztailaren 12an. Bertan, medikamentu berrietarako iritzi positiboak eta jada baimenduta dauden medikamentuen aldaketa interesgarriak aipatzen dira.

Hona [hemen](#) buletinerako esteka.

[HASIERA-ra Itzuli](#)

7 MEDIKAMENTUEN HORNIDURAREN GABEZIAK ETA BERREZARPENAK

Hona hemen hilabete honetako HORNIDURA-GABEZIArik garrantzitsuenak:

- Actiq® 1200 mcg miazkatzeko 15 konp aho-aplikagailuarekin (Fentaniloa)
 - Adventan® 1 mg/ml larruazaleko soluzioa 50 ml-ko flaskoa (Metilprednisolona, azeponatoa)
 - Anapen® 0,3 mg/0,3 ml 1 eta 2 xiringadun ontziak (Adrenalina)
 - Atenza® 36 mg 30 askapen luzeko konp (Metilfenidatoa)
 - Benerva® 100 mg soluzio injehtagarria 1 ml-ko 5 anpoila (Tiamina)
 - Certican® 0,25 mg 60 komp dispersagarriak (Everolimusa)
 - Clonazepam Neuraxpharm® EFG 1 mg 60 konp (Klonazepama)
 - Concerta® 36 mg 30 askapen luzeko konp (Metilfenidatoa)
 - Conferoport® EFG 0,5 mg 30 askapen luzeko kaps. gogor (Takrolimusa)
 - Enanplus® 75 mg/25 mg aho bidezko soluziorako granulatu 20 zorro (Tramadola/dexketoprofenoa)
 - Higrotona® 50 mg 30 konp (Klortalidona)
 - Immufalk® 75 mg eta 100 mg estalitako 50 konp (Azatioprina)
 - Lexxema® 1 mg/ml larruazaleko soluzioa 50 ml-ko flaskoa (Metilprednisolona, azeponatoa)
 - Menaderm clio® 0,25 mg/30 mg/g 30 eta 60 mg-ko krema (Beklometasona/kliokinola)
 - Metilfenidato EFG® (Sandoz, Tecnigen eta Viatris) 30 askapen luzeko (Metilfenidatoa)
 - Metoject pen® 7,5 mg aurrez kargatutako luma 0,15 ml-ko sol. injehtagarria (Metotrexatoa)
 - Moventig® 12,5 mg 30 estalitako konp (naloxegola)
 - Moviprep® 2 zorro A (112 g) eta 2 zorro B (11 g) aho bidezko soluziorako hautsa (Makrogola + azido askorbikoa/askorbatoa + elektrolitoak)
 - Myrelez® 120 mg aurrez kargatutako xiringa 0,5 ml-ko sol. injehtagarria (Lanreotida)
 - Osteopor® 830 mg 40 estalitako konp (Hidtoxiapatita)
 - Retirides® 0,5 mg/g krema 30 g (Tretinoina)
 - Roxitromicina® Sandoz 300 mg EFG 10 estalitako komp (Roxitromizina)
 - Rubicrono® EFG 36 mcg 30 askapen luzeko konp (Metilfenidatoa)
 - Somatulina autogel® 120 mg aurrez kargatutako xiringa 0,5 ml-ko sol. injehtagarria (Lanreotida)
 - Tacni® EFG 0,5 mg 30 askapen luzeko kaps. gogor (Takrolimusa)
 - Tacni® EFG 1 mg 30 eta 60 askapen luzeko kaps. gogor (Takrolimusa)
 - Venlafaxina retard EFG® (KRKA eta VIR) 37,5 mg 30 askapen luzeko konp (Benlafaxina)
-

HORNIDURA-BERREZARPENAK:

- Acitretina® IFC EFG 25 mg kaps. gogor (Azitretina)
- Arteoptic® 1% 3 ml-ko kolirioa (Karteolola)
- Ciclochem® 15 mg/g xanpua 100 ml-ko flaskoa (Ziklopiroxa)
- Ciclopirox Olamina Capitec® 15 mg/g xanpua 100 ml-ko flaskoa (Ziklopiroxa)
- Ciclopirox Olamina Isdin® 15 mg/g xanpua 100 ml-ko flaskoa (Ziklopiroxa)
- Cicloseb® 15 mg/g xanpua 100 ml-ko flaskoa (Ziklopiroxa)
- Engerix-B® 20 mkg/1 ml aurrez kargatutako xiringa (B-hepatitisaren gainazaleko antigenoa)
- Feliben® 35 mcg/h partxe transdermikoak 5 eta 10-eko ontziak
- Ferplex® 15 ml-ko 20 bial edangarri (Burdina, proteinsukzinilatoa)
- Hepaxane® 15.000 UI (150 mg) 1 ml-ko 10 aurrez kargatutako xiringa (Enoxaparina)
- Medikinet® 50 mg 30 askapen aldatutako kaps (Metilfenidatoa)
- Mycostatin® 100.000 UI/ml aho bidezko soluzioa 60 ml-ko flaskoa (Nistatina)
- Sebiprox® 15 mg/g xanpua 100 ml-ko flaskoa (Ziklopiroxa)
- Sebiprox Difarmed® 1,5% xanpua 100 ml-ko flaskoa (Ziklopiroxa)
- Sumatriptan Teva® EFG 50 mg 4 estalitako konp (Sumatriptana)
- Tiaprizal® 100 mg 24 konp (Tiaprida)

PRESBIDEN “Hornidura-gabezia” botoia eskuragarri dago, “Preskripzioen kontsulta” pantailaren beheko aldean, hornikuntza-gabeziei buruzko informazio erabilgarria erakusten duena.



Hornidura-gabeziak esteka honetan kontsulta daitezke:

- PRESBIDE; [Medikamentuan hornidura-gabezien taula](#)
- CIMA-AEMPS; [Hornidura-arazoak dituzten medikamentuen zerrendarako sarbidea](#)

[HASIERA-ra Itzuli](#)

Lehen Mailako Arretako Farmazia

ARABako ESI-A: farmacia.primariaosiaraba@osakidetza.eus

Farmazialariak: Amaia Alzaga, Arantza Hernández, Javier Martínez eta Inés San José



Argitalpen honen edukia Osakidetza Lehen Mailako Arretako farmazialariek egindako hileroko buletinetik egokitu da FarmaHitzak buletinak Osakidetza intranetean daude eskuragarri hurrengo [estekaren](#) bidez